2006-XI-29
Benitez, Irantzu

GAIA: EUSKALTERM

(1) AKZIODUNA: Akzioen jabea, alegia, sozietate baten kapital-zati baten titularra; kapital-zati honek ematen dizkion eskubideez gozatzen duena.

Adibidea: Akziodunak batzarrean elkartu dira, mozkinen banaketa zehazteko.

(2) AURRERAKINA: Kontratuan aurrez ikusitako epea baino lehen kontura egindako ordainketa.

Adibidea: Bezeroak aurrerakina eman dit. Beraz, gero gutxiago ordaindu beharko dit.

(3) BANAKETA BIDEAK: Produktuak ekoizlearengandik azken kontsumitzailearenganaino iristeko egiten duen bidea, edo prozesu horretan parte hartzen duten elkarren mendeko erakundeen multzoa.

Adibidea: Enpresak banaketa bide desberdinak erabiltzen ditu: garraioak, dendak...

(4) EKONOMIA BATASUNA: Aduana-batasuna duten eta politika ekonomikoen harmonizazio-prozesua burutu duten bi estatu edo gehiagoren arteko elkartea.

Adibidea: Europar Batasuna ekonomia batasun bat da.

(5) EUROPAKO BATZORDEA: Europako Erkidegoan gobernu-funtzioa betetzen duen estatuez gaindiko erakundea, Erkidegoaren interesak ordezkatzen dituena. 20 kideko (Alemaniak, Frantziak, Italiak, Erresuma Batuak eta Espainiak bina, gainerakoek bana) organo batez osatua dago, Lehendakaria eta Lehendakariordea barne, eta Bruselan du egoitza.

Adibidea: Europar Batasuneko erabakiak Europar Batzordeak hartzen ditu.

(6) FINANTZA BALIABIDE PROPIOAK: Zorrak edo pasibo galdagarria ez diren enpresaren gainerako finantza-baliabideak. Enpresa sortzean edo kapital-zabalkuntzetan bazkideek egiten dituzten hasierako ekarpenak dira, baita erreserbak edo atxikitako mozkinak (aberasteagatiko autofinantzaketa), eta hornidurak eta amortizazio-fondoak ere (mantentzeko autofinantzaketa).

Adibidea: Enpresako kapitala, esaterako.

(7) GALERA: Urtaldi batean gastuak sarrerak baino handiagoak direnean izaten den emaitza.

Adibdiea: Enpresak emaitza negatiboa izan du. Beraz, galerak izan ditu.

(8) HORNITZAILEA: Bezeroa hornitzen duen pertsona edo enpresa. Enpresaren kasuan, hornitzaileak enpresari produkzio-faktoreak (lehengaiak, hornikuntzak, makinak, informazioa, zerbitzuak...) saltzen dizkioten pertsonak edo enpresak dira.

Adibidea: Mahaiak egiten dituen enpresa baten hornitzailea egurra ematen diona da, adibidez.

(9) INTERES TASA: Teoria ekonomikoan, diruaren prezioa.

Adibidea: Nik dirua utzia gero, interesekin itzuli beharko didazu.

hemen nortu

(10) KAPITALA: Iraupen luzeko ondasunak, urtaldi batean baino gehiagotan erabiltzekoak, hala nola, lurrak, eraikinak, makineria, ekipamendua. Kapital zirkulatzaileari kontrajartzen zaio.

Adibidea: Enpresa baten kapitala 60 000 000 €-koa da, adibidea.

(11) KREDITU ASEGURUA: Kontabilitateko aktiboko kontua, eskudiruaren mugimenduak, hau da, legezko diruaren sarrerak eta irteerak, jasotzen dituena.

Adibidea: Sute bat egoneaz gero, kreditu asegurua ordainduko du.

(12) KUTXA: Kontabilitateko aktiboko kontua, eskudiruaren mugimenduak, hau da, legezko diruaren sarrerak eta irteerak, jasotzen dituena.

Adibidiea: Kutxan 200€ ditu enpresak.

(13) MONETA: 1979an Europako Diru Sistemako funtsezko osagai moduan sortu zen diru artifiziala, Batasuneko estatu-diru guztiak proportzioan ordezkatzen zituena, estatu bakoitzaren ekonomiak zeukan pisuaren arabera. Euroak ordeztu zuen 1999ko urtarrilaren 1ean.

Adibidea: Parisera joaten banaiz moneta berarekin ordainduko dut: Euroa.

(14) MOZKINA: Enpresa baten sarrera eta gastuen arteko diferentzia positiboa, enpresaren ondare garbia handitzen duena.

Adibidea: Enpresak emaitza positiboa izan du. Hau da, mozkina.

(15) PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA: Estatuko zerga, zuzena eta pertsona bakoitzari dagokiona. Errentaren bat eskuratzen duen sujetu pasibo edo pertsona fisikoaren errenta guztien arabera ordaintzen da, modu progresiboan, beti ere, irabazien zenbatekoa eta pertsona nahiz familiaren egoera kontuan izanda.

Adibidea: Aurten PFEZ zorduna izan da. Beraz, ogasunari ordaindu behar diot.

(16) PRODUKTUA: Prozesu natural edo artifizial baten emaitza, giza premiak asetzeko xedea duena.

Adibidea: Mahaiak ekoizten dituen enpresa batean mahaiak izango dira.

(17) SALMENTA: Negozioa uzteagatik edo komeni ez diren izakinei irteera emateko salgaiak prezio apalean saltzea.

Adibidea: 10 produktu saldu ditut 5€-tan. Beraz, salmenta 50€ izan da.

(18) SARRERA: Jasotzen, kobratzen, kutxan sartzen den dirua.

Adibdiez: Saldu dudan unean 1000€ jaso ditut. Beraz, sarrera da.

(19) SOLDATA: Langileak bere lan edo zerbitzuen truke epe jakinetan jasotzen duen ordaina, diruzkoa edo gauzazkoa. Kontzeptu honetan, benetako lanarengatik ordaindutakoaz gainera, legezko atsedenaldien truke ordaintzen dena ere sartzen da.

Adibidea: Langileei 2000€-ko soldata ematen die enpresak, adibidea.

(20) ZUZENDARITZA: Enpresa edo erakunde bateko jarduerak planifikatzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko ahalmena eta erantzukizuna duten pertsonak.

Adibidea: Zuzendaritzak soldatak igotzea erabaki du.